# Denbora-

## 1 Zazpi aldeak

Primeran pasa dute oporretan Maddik eta Unaxek. Piraguan ere ibili dira. Hona froga.

Zazpi gauza aldatu ditugu argazkian. Zeintzuk?





## 2 Giltza

Giltza guztien kopia bana egiteko ohitura du Markelek. Multzo honetako bi giltza berdinak dira. Zein?




fintasun | mozolo
planta | igarri
ziurtagiri | itxura
hontz | leuntasun
atzeman | egiaztagiri

## 3 Sinonimoekin jolasean

Gelan topatu dituen traste guztiak poltsetan gorde ditu Kirmenek. Jarri binaka esanahi bera duten poltsak.

Erantzunak: **2.-** a-d. **3.-** Fintasun-leuntasun, planta-itxura, ziurtagiri-egiaztagiri, hontz-mozolo eta atzeman-igarri. **5.-** Arrapaladan, kokolokeria, xelebrekeria, hiruhilabeteko, beldurti eta belardi.

# -pasak




## 4 Osatu irudia

Arkatz eta marrazki artean igarotzen du eguna Asierrek. Marrazkilaria izan nahi du. Amaituko duzu hark hasiko irudia?



## 5 Mamuen mezua

Mamuz mozorrotzea erabaki dute Uxuek eta lagunek. Hitz bat eramango dute soinean. Zer esan nahi duten jakiteko, batu kolore bereko mamuak.

## Orekari eutsi nahian

Hanka gora jasota daukagunean edo postura arraroren batean gaudenean, zaila da orekari eustea. Frogatu nahi al duzue?

**1** Seinalea entzun orduko, postura berezia hartuko dute jokalariek: hanka bat gora jaso, tolestu eta beste hankako belaunaren gainean pausatu beharko dute. Besoak, berriz, gurutzatu eduki behar dituzte. Zein postura hartu behar den hobeto ulertzeko, begiratu marrazkia.



**2** Ez da oso postura erosoa, beraz, horixe da erronka: postura horretan ahalik eta denbora gehiena egotea.

**3** Xelebrekeriaren bat egin daiteke, aurkariari barre eginarazteko. .

**4** Jasotako hanka lurrean jartzen duen jokalariak galduko du erronka.